

Fundación **BBVA**

VIII.
Musika Garaikideko
Konzertu Zikloa
Bilbao
2017-2018

Ensemble de Cadaqués

Fundación BBVA
San Nikolas Eraikina
Bilbao

2018
MAR
13



BBVA Fundazioa

BBVA Fundazioak —ezagutza zientifikoa eta kultur sormena bultzatzea bereizgarri duenak— Musika-programa bat eratu du arte-adierazpen horri onura ateratzeko eta hartaz gozatzekeo gizarteak dituen era ezberdinetan barrena egindako ibilbide oso bat izango balitz bezala. Horrela, obra berriak sortzea sustatzen du konposizio-enkarguak eginez, eta haiek zaindu eta zabaltzeari bide ematen dio lehen mailako diskoetxe eta interpreteekin elkarlanean egindako grabazioen bitartez. Zuzeneko musikaz gozatzea sustatzen du urteko kontzertu-zikloen bitartez, zeinei esker herritarrek doan entzuten baitituzte erreperitorio garai-kidean erreferentzia diren ensemble eta solistak. Konferentzia-zikloak antolatzen eta argitalpenak editatzen ditu egile jakin batzuen lana hobeto ulertzeko edota konposizio-aldi jakin batzuen azterketari ekiteko. Musikari gazteei prestatzeko aukera ematen die

honako hauekin garatutako programen bitartez: Orquesta y Coro de la Comunidad de Madrid, Joven Orquesta Nacional de España eta Escuela Superior de Música Reina Sofía. Eta ikerketa- eta sorkuntza-proiektu oso berritzaileak gauzatzen ditu Musika eta Operako Leonardo Beken bitartez.

Orkestren kudeaketari buruzko sinposio espezializatuak antolatzen ditu, elkarlanean jarduten du herrialdeko hainbat musika-talde eta antzokirekin (Teatro Real, Teatro de la Maestranza, Gran Teatro del Liceu, Orquesta Sinfónica de Madrid eta Operaren Lagunen Bilboko Elkartea, besteak beste), eta bikaintasuna aitortzen du honako sari hauen bidez: Premio de Composición Asociación Española de Orquestas Sinfónicas-Fundación BBVA eta BBVA Fundazioa Fronteras del Conocimiento Saria Musika Garaikidean.

Fundación **BBVA**

Interpreteak

Ensemble de Cadaqués

Joan Enric Lluna, klarinetea
Iñaki Iraola, fagota
Germán Latorre, tronpa
Jordi Masó, pianoa
Carlota Amargós, biolina
Elena Rey, biolina
Irina Peña, biolina
Vicent Nogués, biola
Elena Solanes, biolontxelo
Juan Pérez de Albéniz, biolontxelo
Luis Otero, kontrabaxua

Júlia Gállego, flauta

Josep Vicent, zuzendaria

Egitaraua

LEHEN ZATIA

Igor Stravinsky (1882-1971)

Septeto

- 1. ♩ = 88
- 2. Passacaglia
- 3. Gigue

Joan Albert Amargós (1950)

ConcERT Exprés para flauta y conjunto instrumental

- 1. Tempo giusto
- 2. Intenso e rubato
- 3. Allegro giusto

BIGARREN ZATIA

Mikel Chamizo (1980)

*Espirals**

John Adams (1947)

Shaker Loops

*Erabateko estreinaldia
BBVA Fundazioaren enkargua

Zikloaren koordinazioa

Gabriel Erkoreka

Igor Stravinsky

Septeto

XX. mendeko musikako «liskar» zirraragarrietako bat Arnold Schoenberg eta Igor Stravinsky musikarien artekoa da. Hori bai: bi konpositore handi horiek ez ziren inoiz elkar joka hasi, eta elkarrekin ere ez zuten eztabaidarik izan, baina, beste pertsona batzuk biek zuten sortzeko printzipioen —ustezko— aurkakotasuna elikatzeaz arduratzen ziren bitartean, elkarrengandik urrun eta kritiko agertu ziren. Egia da, sotiltasunez bada ere, eztenkadaren bat jaurti ziotela elkarri jendaurrean: hala, Schoenbergekin Stravinskyri buruz ironiaz hitz egin zuen abesbatzarako eginiko *Tres sátiras* haietako batean, hain zuzen, izenburua *Der neue Klassizismus* (*Klasizismo berria* edo *Neoklasizismoa*) zuen hartan, eta Stravinskyk, berriz, antza denez, Schoenbergi «erantzun» zion *Poética musical* izenburupean argitaratu ziren hitzaldi batzuetan. Baina kontua da, Schoenberg zendu ondoren, Stravinsky metodo dodekafonikora hurbildu zela, eta seriearen eremuan jorratu zituela heldutasun handieneko aldiko hainbat lan, agian, Schoenbergendik baino, Webernengandik gertuago konposatu arren.

Klarinete, fagot, tronpa, biolin, biola, biolontxelo eta pianorako *Septetoak* —1952an hasi eta 1953ko otsailan amaitu zuen— hasiera eman zion Igor

Stravinskyren obraren amaierako aldi horretan ikus daitekeen joera horri. Hurrengo urteko urtarrilaren 23an estreinatu zuen Columbia Chamber Ensembleak konpositorearen zuzendaritzapean, Dumbarton Oaks izeneko etxean, Washington D.C.ko Georgetown auzoan. Partitura konpositoreak liburutegiari eta etxe horretako arte-bildumei egindako oparia da, eta gogoan izan Stravinskyren beraren konposizio batek, hain zuzen ere, *Dumbarton Oaks* duela izena, etxearen jabe Bliss sendiaren enkargua izan baitzen. Astebete geroago, *Septetoa* New Yorken ezagutarazi zuten.

Esan bezala, *Septetoa* Stravinskyk ustez oso arrotz zuen prozedura batetiko atxikipenaren lehen adibideetako bat da. Seguruena, Schoenbergen *Quinteto de viento*, *op. 26* eta *Suitea*, *op. 29* (zazpi instrumentutarako) nolabaiteko erreferentziak izan ziren Stravinskyrentzat, baina, hori esanda, erantsi behar dugu nortasun izugarri handia zuela, eta, beste batzuen printzipio teknikoen arabera konposatuta ere, zalantzarik gabe berea den musika egiten jarraitu zuela. Izan ere, *Septetoaren* sonoritatea berehala ezagut daiteke Stravinskyren berezkotzat, eta gauza bera esan daiteke hartutako eskema formalei dago kienez; izan ere, beste behin ere (*Der neue Klassizismus*), iraganera begira jartzen dira: lehen denborak beste indikaziorik ez darama, metronomikoa

baino, baina bigarrena *Passacaglia* bat da, baxu modura ageri den seriearen gaineko bederatzi bariazio dituena, eta hirugarrena, berriz, *Gigue* konplexu bat, non lau fuga oso labur elkarren ondoren baitatuz *Passacaglia* elikatzen duen serie bera oinarri hartuta.

Partituran Vienako Bigarren Eskolaren berezko keinuak daudela nabarmentzeko, adierazi behar dugu mugimenduko lehen sei notetatik abiatzen dela lehen denboran dagoen fuga, baina atzetik aurrera eta zortzigarrenera transposatuta; *Passacaglia*ko lehen bost notek hasierako temako lehen bost notak errepikatzen dituzte; eta *Passacaglia*ren tema honen aurkezpenak Schoenbergren *Klangfarbenmelodieren* proposamenera (tinbreen melodia) igortzen du.

Joan Albert Amargós

ConcERT Exprés

Joan Albert Amargós pianista, klarinetista, zuzendari, moldatzaile eta konpositore bartzelonarra Liceuko Kontserbatorioan trebatu zen, eta askotariko musika-kategoria eta -estiloetarako erabateko irekitasuna agertu du sari ugari karreraren hastapenetik. Bere musika naturaltasunez biltzen zaio flamenkoari, jazzari edo herri-musikaren hainbat adierazpeni. Pop musikaren eta musika klasikoaren interpretatzaile handientzat lan egin du, baita zinema

eta antzerkirako ere. Kontzerturako musikaren esparruan, Amargósek lan ugari konposatu ditu, solo eta duotik musika sinfoniko-koral eta operaraino, eta haren katalogoak haize-solistetarako kontzertu asko ditu: klarinete-rako, tronboi baxurako, flauta eztirako, saxofoi alturako...

Instrumentu solista eta orkestrarako kontzertuaren eta ganbera-musikaren arteko erdibidean dago hemen entzungo dugun flauta eta instrumentu-talderako *ConcERT Exprés* lana. Egileak honako aurkezpen-ohar hau helarazi digu:

«*ConcERT Exprés* nire betiereko maiteari eskainitako flauta solista eta instrumentu-talderako lan bat da. 2017ko amaieran konposatua, Júlia Gállego flautista bikainak eta Josep Vicent zuzendariak lehen aldiz interpretatuko duten itxaropenarekin sortu da.

Iraupen laburreko kontzertua da (hamabost minutu inguru), eta hiru zati ditu. Lehen mugimendua *Tempo giusto*an markatua dago, zeinaren ezaugarri nagusia zentzu erritmiko eta melodikoa den. Etengabeak eta agerikoak dira buleria flamenkoari eginiko keinuak. Bigarrenak, *Intenso e rubato*, izaera geldokoak, hasiera estatikoa du baina atal adierazgarri bat dator ondoren, non helburua baita bakarlarriak hunkiberatasuna nabarmentzea. Mugimendua hasierako motiboarekin

itxiko da, baina funtsezko alde harmonikoak daude. Eta hirugarren eta azken mugimenduak (*Allegro giusto*) osatzen duten elementuen alderdi ludikoa nabarmentzea du eginkizun. Formula melodiko-erritmikoak oso erraz ezagutzeko modukoak dira, etengabe erabiltzen baitira. Aldaketa harmoniko nabarierkin erabiltzen dira beti, kontzertuaren amaierara arte funtzionatzeari utziko ez dion motor bat direla ahaztu gabe.

Mikel Chamizo

Espirals

Mikel Chamizo Tolosan sortua da. Jaio-terriko musika-eskolan jaso zuen lehen musika-prestakuntza eta oboista gisa graduatu zen Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorioan. Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian (Musikene) sartu zen berehala. Konposizioa ikasi zuen hor Lazkano, Erkoreka eta Scarani maisuekin, eta, horrekin batera, musika-kritikaren alorrean ere murgildu zen lehendabizikoz. Musika garaikidearen kontzertu-zirkuituetan laster sartu dira haren lanak, eta nazioartean zabaltzen ari dira solista, ensemble eta orkestra garrantzitsuek interesa agertu ondoren. Kontzertu tradizionalaz gain, Chamizok loturak ditu gaur egungo esparru jakin batzuekin, eta horren ondorio da 2011ko *365 Musical Tweets* izeneko proiektua, esate baterako.

Espirals lana BBVA Fundazioaren enkar-gu bat da, Emsemble de Cadaqués-ek Musika Garaikideko Zikloan gaur eskaini beharreko kontzertuan estreinatu dezan. Mikel Chamizok berak honela azaldu du gaur ezagutuko dugun lana:

«Nire konposizioetako beste batzuekin gertatzen den bezala, estreinaldiaren egunean harekin batera entzungo diren gainerako musikekin nolabait lotzen saiatzen bainaiz beti —inspirazioa pizteko ere balio didan erronka pertsonal gisa—, *Espirals* lanak erreferentzia-puntutzat hartzen ditu gaur gauean entzungo ditugun bi pieza: Stravinskyren *Septetoa*, zeinetik instrumentu-talde zehatza hartzen baitu, eta John Adams konpositorearen *Shaker Loops*, zeinaren begizten inguruko lanak galdera ugari, baita erantzun batzuk ere, eragin dizkidan. Lehenen artean, galdera nagusia minimalismo estatubatuarraren sorkarrietan ia beti hautematen dudan ziurgabetasun zinetikoari buruzkoa da; izan ere, errepikapenean eta gehitzeko eta kentzeko prozesuetan oinarritutako diskurtsoak hainbat muga dakartza denbora eratzeko eta, azken batean, baita ere eteteko orduan. Minimalismoaren ezaugarri hori bi ikuspegitatik ikus daiteke: dela gehiegizko mugimendu gisa edo, aitzitik, eta Zenonen paradoxen logika aplikatuta, haren erabateko gabezia modura. Gogoeta horiek irudi bat ekarri zidaten gogora: ume txikiak

eskulanetako eskoletan, Arkimedesen erruletak oinarri hartuta, egiten dituzten kiribil magikoena: beren buruaren inguruan biratzen diren eta betiereko mugimendu-sentsazioa sortzen duten kiribilak, alegia; mugimendu hori, ordea, ilusio bat baino ez da azkenik, aldaketarik ez dagoelako.

Espirals lanaren partituran era guztietako “kiribil magikoak” birsortzen saiatzen naiz: etengabe errepikatzen diren igoera kromatikoak instrumentuen artean banatuta, *hoquetusen* tankerako ilusio erritmikoak, kanon moduko nota-zurrunbiloak, puntu beraren gainean kulunkatzen diren akordeak, beren buruaren inguruan biratzen diren esaldiak, gora eta behera egiten duten tremoloak edo errepikapen eta *glissandi* obsesiboko piano bat. Mugimenduaren gaineko “efektu optiko” horiek guztiak, ordea, ia guztiz estatikoak diren testuinguru harmonikoen gainean hedatzen dira. Hots, obra itxuraz mugitzen ari bada ere, zenbaitetan modu frenetiko batez egin ere, egiaz apenas mugitzen den. Eta mugimendu/gelditasuneko ziurgabetasun hori haren azken sekziora iristen da, non materialak elkarren gainean jartzen eta handiagotzen baitira, kiribil formal batean bilduta orain: obrako azken bi konpasak lehenengo biekien egokitzen dira, eta, horrela, kiribila berriz has liteke aldiro, betiko biratzen jarraitzeko».

John Adams

Shaker Loops

John Adams konpositore estatubatuarra (Massachusetts) Harvardeko Unibertsitatean lortu zuen titulua, eta klarinetista, zuzendari eta konpositore modura nabarmendu zen. Maisuen artean, Roger Sessions izan zuen. 70eko hamarkadaren hasieran irakasle zen jada San Frantziskoko Musika Kontserbatorioan, eta konpositore egoiliar gisa lan egin zuen hiri horretako orkestra sinfoniko entzutetsuarekin batera, eta haren lanak nazioartean zabaldu ziren handik. Adamsen musikaren ezaugarrietako bat sentimendu adierazkorra da (komentaristek neorromantizismoaz hitz egin ohi dute horregatik), eta, edozelan ere, entzulearekin zuzenean komunikatu nahi izaten du. Gainerakoan, John Adams minimalista amerikarren bigarren belaunaldi deitu ahalko genukeen horretako kidea da, Steve Reich eta Philip Glassen atzetik.

Zalantzarik gabe, *Shaker Loops* Adamsen nortasun musikalaren prototipo goiztiar bat da, eta, hala den aldetik, partitura ezin hobea haren soinu- eta kreazio-munduan murgiltzeko. Hark bere “opus 2”, bere bigarren konposizio nabarmentzat, jotzen du, eta honela azaltzen du izenburua: *Shaker* izenburuak erreferentzia egiten die arkuek hariak igurztean egiten duten mugimendu azkarrari nahiz ezkerreko eskuko atza-

marren mugimendu azkarrari, baina Estatu Batuetan XIX. mendean izan zen joera erlijioso bat ere bada, zeinaren jarraitzaileek abesten eta dantzatzen baitzuten nolabaiteko estasi erlijiosoa lortze aldera. Hori ekartzen du gogora Adamsen lanak obsesiboki errepikatzen diren eta gero eta azkarragoak eta grinatsuagoak diren mugimendu erregularrekin, zeinak piezaren sekzio batzuetan ikusiko ditugun. Partiturak, funtsean, keinu fisikoak eskatzen dizkie interpretatzaileei, oso bestelako zer-bait, hortaz, ohituta dauden eskrituraren aldean, eta horregatik da interpretatzen zaila, pentagrametan ageri diren noten soiltasuna gorabehera.

Lan hori 1978an idatzi zuen, hasieran hari-septetorako (hiru biolin, biola, bi bilontxelo eta kontrabaxua), baina 1983an hari-orkestrarako bertsio bat ere editatu zuten. Ganberako bertsioaren erabateko estreinaldia San Frantziskoko Hellman Hall aretoan izan zen, 1978ko abenduan, Estatu Batuetako hiri horretako kontserbatorioko New Music Ensemble taldearen eskutik, eta orkestrarako bertsioa, berriz, 1983ko apirilean ezaguturazi zuten, New Yorkeko Alice Tully Hall aretoan; azken hori American Composers Orkestrako hariak interpretatu zuten, Michael Tilson Thomasen zuzendaritzapean.

José Luis García del Busto

Ensemble de Cadaqués



Orquestra de Cadaqués 1988an sortu zen, Espainiako eta Europako beste herrialde batzuetako musikari gazte batzuen eskutik, eta helburu argiak zituzten orkestra-talde moduan: bizirik dauden musikagile garaikideengandik gertu lan egitea, bidegabeki ahaztutako musika espainiarraren ondarea berreskuratzea eta bakarlari, musikagile eta zuzendari berrien karrerak bultzatzea.

Orquestra de Cadaqués jatorriko mediterraneokoa da, baina ikuspuntu kosmopolita argia du; aintzatespena berehala jaso zuen musikaren esparruan, musikarien kalitate eta konpromisoarengatik eta proiektuen dinamismoarengatik.

Besteak beste, Sir Neville Marriner, Gennady Rozhdestvensky eta Philippe Entremont zuzendariak babestu zuten proiektua, gonbidatu nagusi bihurtu ziren eta hala egin zuten ere bai Alicia de Larrochak, Victoria de los Ángelesek, Teresa Berganzak, Paco de Lucíak, Ainhoa Artetak, Jonas Kaufmannek, Olga Borodinak eta Juan Diego Flórezek, beste batzuen artean.

1992an, orkestrak Zuzendaritzako Nazioarteko Lehiaketa bultzatu zuen. Bi urtean behingo lehiaketa horrek,

Espainiako beste orkestra sinfoniko batzuen laguntzarekin, merkatu profesionaleko ateak zabaltzen dizkie mundu osoko zuzendari gazteei. Pablo González, Gianandrea Noseda, Vasili Petrenko eta Michał Nesterowicz izan dira gaur egun itzal handiko orkestretan toki nabarmena duten zuzendari irabazleetako batzuk.

Gianandrea Noseda da, 1998tik aurrera, Orquestra de Cadaquéseko zuzendari nagusia, eta Jaime Martín, orkestraren musikari sortzaileetako bat eta lehen flauta hogeitaz urtez, zuzendari titularra da 2011tik.

Orquestra de Cadaquésen Emsemble de Cadaqués eta konpositore egoiliarren figura sortu zituen, musika garaikidea sustatzeko eta zabaltzeko. Xavier Montsalvatge, Jesús Rueda, Hèctor Parra, Jesús Torres, Luis de Pablo eta Joan Guinjoan konpositoreen lanak estreinatu ditu, besteak beste.

Orkestrak hainbat grabazio ditu bere zuzendari nagusien eskutik (Sir Neville Marriner, Gianandrea Noseda eta Jaime Martín), Tritó eta Philips diskoetxeek argitaratuta, eta umeentzako musika klasikoko *Solfa la Redonda* bilduma sortu du.

Azken emanaldien artean, nabarmentzekoa da 2017ko abuztuan hasiera eman ziola Bremeneko Musikfesti, eta hiru kontzertu eman zituela 2017ko urrian Salzburgoko Großes Festspielhaus aretoan. Etorkizuneko hitzorduen artean bira bat egingo du Vladimir Ashkenazy zuzendariarekin 2018ko maiatzean, eta Austria eta Eslovakiara itzuliko da 2019an.

Júlia Gállego



Altean jaio zen, 1973an, eta zeharkako flautako ikasketak hasi zituen han. Musika-heziketa Alacanteko Óscar Esplá Goi Mailako Musika Kontserbatorioan osatu zuen, eta, geroago, Hector Berlioz Kontserbatorioan eta Parisko Goi Mailako Musika eta Dantza Kontserbatorio Nazionallean. Sari ugari erdietsi ditu, honako hauek, besteak beste: erdi- eta goi-mailako Ohorezko Saria, Concours Internationaux de la Ville de Pariseko Lehen Saria, Terrassako Montserrat Alavedra Ganbera Musikako Lehiaketako Lehen Saria Quinteto Haizearekin, Parisko Goi Mailako Musika eta Dantza Kontserbatorio Nazionalaren Lehen Saria aho batez, eta Lehen Saria eta Entzuleen Sari Berezia Municheko Internationale Musikwettbewerb der ARD lehiaketan, Miró Ensemblerekin batera (2001).

Joven Orquesta Nacional de España (1992-1996) eta Gustav Mahler Jugendorchesteran (1997-2001) parte hartu du, eta flauta bakarlari gonbidatua izan da Tenerifeko Orquesta Sinfónica (1997-1999) eta Galiziako Orquesta Sinfónica (2001-2002). Gaur egun, nabarmentzekoak dira honako orkestra hauekin izandako parte-hartzeak: Rotterdameko Orkestra Filarmonikoa, Suediako Irratiko Orkestra Sinfonikoa, Camerata Bern, MusicAterna, etab.

Orkestra-jarduera biaz gain, bakarlari gisa eta ganbera-musikako taldeetan ere jardun ohi du maiz. Alor horretan askotariko musikarirekin aritzen da elkarlanean (Gordan Nikolic, David Quiggle, Alba Ventura, Stéphane Garin, David Grimal, Horst Hoffmann, Gérard Caussé, Henri Demarquette, Radovan Vlatković eta Claudio Martínez Mehner), eta sarri esku hartzen du ganbera-musikako jaialdietan, Estatu Batuetako Charlottesville Chamber Music Festivalen, Alellako Músics en Residèncian eta Alemaniako Internationales Festival der Kammermusik in Kempten jaialdian, besteak beste.

Bakarlari gisa, berriz, honako hauekin jo du: Tenerifeko Orquesta Sinfónica, Orquesta Ciudad de Granada, Galiziako Orquesta Sinfónica, Cadaquésko Orquesta, Gaztela eta Leongo Orquesta Sinfónica, bandArt, St. George Strings, Les Dissonances edo Camerata Bern, besteak beste.

bandArt orkestraren sortzaileetako bat da eta bertako flautista; gaur egun, Mahler Chamber Orkestrako, Lucernako Jaialdiko Orkestrako, Cadaquésko Orquestako eta Les Dissonances orkestrako kide da. Horrez gain irakasle ere aritzen da Kataluniako Goi Mailako Musika Eskolan (ESMUC) eta Bartzelonako Liceuko Kontserbatorioko Goi Mailako Zentroan.

Josep Vicent



Josep Vicent Alberto Zedda eta Daniel Barenboim zuzendarien laguntzaile izan zen, eta Amsterdameko Royal Concertgebouw Orkestran lan egin zuen 1998tik 2004ra bitartean. Amsterdam Percussion Group talde ezaguneko arte-zuzendari gisa karrera luze eta goiztiarra izan zuen, baita Herbehereetako Gaudeamus Fundazioaren musika garaikidean espezializatutako The Interval Chamber ensemblean ere. Horren ondoren, baina, zuzendari gisa karrera sendoari ekin zion nazioartean, hainbat talde-tako buru izanda. Honako hauek daude haien artean: London Symphony Orchestra, Royal Philharmonic Orchestra, Parisko Ganbera Orkestra, Rotterdameko Orkestra Filarmonikoa, Royal Liverpool Philharmonic, Hagako Residentie Orkest, Herbehereetako Irratikoko Orkestra Metropolitanarra, Kieveko Orkestra Sinfonikoa, Balear Uhartee-tako Orquesta Sinfónica (zuzendari titularra 2013tik 2015era bitartean) eta Txileko Orkestra Sinfoniko Nazionala (zuzendari elkartua 2010az geroztik).

Espainiako talde sinfoniko gehienak zuzendu ditu, Orquesta Nacional de España, Orquesta Sinfónica de RTVE eta Valentzia, Bartzelona, Galizia, Málaga eta Sevillako orkestrak. Opera-

ekoizpenak zuzentzen ditu Leipzigezko Opernhaus opera-antzokian, Bruselako Théâtre Royal de la Monnaie, Madrilgo Teatro Realen eta Bartzelonako Gran Teatre del Liceun. La Fura dels Baus taldearen ikuskizunen musikazuzendaria da 2014tik, eta Alacanteko Diputazioaren Entzunaretoko (ADDA) arte- eta musika-zuzendaria. Lankidetzan jardun du Guy Caron arte-zuzendariarekin (Cirque du Soleil), Michael Nyman, Iannis Xenakis eta Karlheinz Stockhausen konpositoreekin, bai eta Víctor Ullateren balletarekin eta Rotterdameko Scapino Balletarekin ere, besteak beste.

The World Orkestrako zuzendari nagusia da 2004tik. Nazioarteko talde horrekin hemezortzi bira egin ditu lau kontinentetan, eta diplomazia- eta lankidetzan handia egin du Europar Batasunaren Kultura Programaren babesean.

Stravinskyren *Udaberriaren sagaratzea* lanaren gainean egin zuen grabazioak Musika Klasikoko Album Onenaren UFI Saria erdietsi zuen 2009an. Vicent Marín i Soler konpositorearen obertura guztiak berreskuratu ditu, eta ehunka lanen erabateko estreinaldiak egin, tartean Astor Piazzolaren *Maria de Buenos Aires* operaren bertsio antzetzua.

Sari asko irabazitakoa da, besteak beste, Espainiako Juventudes Musicales Lehiaketako Lehen Saria, Valentziako Arteen Vicente Monfort Saria, Alacanteko Óscar Esplá Saria eta *La Verdad* egunkariko Los Mejores Saria. Cultura de Paz Fundazioaren nazioarteko enbaxadorea da, Federico Mayor Zaragoza buru duen fundazioarena, alegia.

Zuzendari lehendabizikoz arituko da 2017-18ko denboraldian Milaneko Giuseppe Verdi Orkestra Sinfonikoarekin eta Belgikako Orkestra Nazionaleko buru Bruselako Arte Ederren Jauregian, eta berriz ere lan egingo du London Symphony Orkestrarekin, Esloveniako Orkestra Filarmonikoarekin — Errusiako Balleten musikarekin — eta Auvernia, Txile, Bartzelona eta Valentziako orkestrekin, besteak beste.

Laguntzarekin:



Generalitat de Catalunya
Departament de Cultura



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE EDUCACIÓN, CULTURA
Y DEPORTE

inaem

INSTITUTO NACIONAL
DE LAS ARTES ESCÉNICAS
Y DE LA MÚSICA

Hurrengo kontzertuak

Musika Garaikideko VIII. Kontzertua Zikloa BBVA Fundazioa

BBVA Fundazioa • San Nikolas plaza, 4. Bilbao • 19:30 h

2018 | 04 | 10

Trío Zukan

Félix Ibarondo, María Eugenia Luc, Isabel Urrutia, Francisco Domínguez
eta Magnus Lindberg-en lanak

2018 | 05 | 15

Ensemble PHACE

Nacho de Paz (zuzendaria)

Paris qui dort, René Clair-en filma. Yan Maresz-en musika

